

ikasturteak

2018

2019

Produktua ingurumenaren **Aldetik hobetzea**



¿Zeintzuk dira ekimeneko partaideak?

Novia Salcedo Fundazioa

Novia Salcedo Fundazioa erabilera publikoko kultur fundazio pribatu bat da. Euskal gizartean itxaropen konstruktiboko jarrera hedatzeko sortu zen. Gazteekin dihardu, eta ildo estrategiko hauek ditu: Gazteen laneratzea sustatzea, berrikuntzaren eta balio-ekarpenaren bitartez, tokiko ikuspegitik eta ikuspegi globaletik. Berrikuntza Sozial aplikatuko ikerkuntza eta ezagutza garatzea eta Berrikuntza Sozialaren agente eragile izatea. Esparru politiko, sozioekonomiko eta kulturalaren eragile garrantzitsuengan eragitea, eta horiek mugiarazi eta mobilizatzea, haien lankidetzak aktiboa, gizartearen kontzientziazioa eta gazteen inplikazioa bilatuta.



Ihobe

Ihobe Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren mendeko Sozietate Publiko bat da, eta honako xede hau du: Eusko Jaurlaritzari laguntza ematea, ingurumen-politika betetzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoan ingurumen-jasangarritasunaren kultura hedatzeko. Horretarako: Ingurumen-jakintza sortzea eta ezagutaraztea bultzatzen du. Enpresekin, herri-administrazioarekin eta herritarrekin lankidetzan dihardu. Ingurumenaren hobekuntzaren eragile eta parte-hartzaile aktiboa da. Jakintza eta baliabideak partekatzen ditu, oinarrian bikaintasuna eta gizarte erantzukizuna dituela.



Deusto

Facultad de Ingeniería
Ingeniaritza Fakultatea

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Euskadiko Unibertsitateak


Basque Ecodesign HUBa Euskadiko unibertsitate eta prestakuntza-zentroei irekitako ekimen bat da. Hala, bai prestakuntza-jardueretan, bai proiektu tekniko nahiz ikerkuntza-proiektuetan parte hartzeko aukera dute ikasleek.

Basque Ecodesign HUBak Euskadiko hiru unibertsitate nagusiekin ekin dio bere jardunari.




MONDRAGON
UNIBERTSITATEA





Enpresekin egindako proiektuak



Gorka Barbarias García

Industria Teknologiaren Ingeniaritzako Gradua

Bizi-Zikloaren Azterketa (BZA) eta Produktuen Ingurumenen Adierazpena (PIA) bulegoko dibisioaren eremua

Aluminios Eibar S. L.

Proiektuan, bizi-zikloaren azterketaren (LCA) txostena eta Aluminios Eibarko bulegoko dibisioaren (Rauman) Produktuaren Ingurumen Adierazpena (PIA-EPD) garatu dira. Egungo merkatuan bulego dibisioaren bereizketa egingo da. Horien artean, partizio linealak eta modularrak, ate kulunkagarriak eta ate irristagarriak nabarmendu daitezke. Aluminios Eibarrek produktu sorta hau, beira bakarra, beira bikoitza edo sistema itsuko moduluetan lantzen ditu.

Horrela, BZA eta PIA-n 15 pantaila eta ate konbinazio desberdin aztertu dira, eraikinetan LEED, BREEAM eta HQE ziurtagirietan lortu daitezkeen puntuak zehaztu delarik txosten batean.



aluminios eibar



Iñigo Rodríguez de Velasco

Industria Diseinuaren Ingeniaritzako Gradua

Ingurumen-Aztarna Korporatiboaren Kalkuloa

Adam Foods

Proiektua Adam Foods-ek Orozkon duen Artiach gailiten enpresaren Ingurumen Aztarna Korporatiboa, 1 + 2 + 3 irismenarekin, kalkulatzeko datza. Konpainiaren Bizi-Zikloaren Inbentarioa egin da, eta ondorengo kategoriak kontuan hartu dira: materialaren erostea, erregaien kontsumoa, sortutako emisioak, produktuen garraioa eta bizitza amaiera.

Ondoren, SimaPro programa erabiliz, Bizi- Zikloaren inbentarioaren ebaluazioa egin da, Ecoinvent eta Agri-footprint datu-baseetako adierazleak eta ReCiPe metodologia erabiliz. Azkenik, aipatutako instalazioetarako 2017. urteari dagokion Ingurumen Azternaren txostena egin da. Enpresari, ondorengo urteetako Ingurumen Aztarna Korporatiboa kalkulatzeko, inbentarioa biltzeko eta emaitzak lortzeko excel tresna bat diseinatu zaio.





Carlos Gutiérrez García



Industria Teknologiarren Ingeniaritzako
Gradua

Bridgestone Hispania Manufacturing-en Ingurumen- Aztarna Korporatiboaren Kalkulua


Bridgestone Hispania Manufacturing S.L

Proiektua, 2018 urterako, Bridgestone Bilbao eta Bridgestone Usánsolo lantegietako ingurumen aztarna kalkulatzeko datza, hala nola aurreko urteetako aztarnaren joera aztertzea. Horretarako, lantegietan, kontrol panel integralaren sarrera eta irteeren inbentarioa egin da, informazioa sailen eta produkzio prozesuen arabera antolatuz.

Era berean, enpresak berak dituen kalkulu-tresnen faktoreak eguneratu dira. Proiektu berriak proposatzen direnean ingurumen alderdiak ebaluatzeko tresna bat diseinatu da ere. Tresna honek uraren, elektrizitatearen eta hozgarrien kontsumoaren ingurumen-inpaktuak alderatzen ditu. Aipatu beharra dago tresnak proiektu desberdinek sortutako zarata ere alderatzen dituela.



BRIDGESTONE



Aitor Mejias Ondaro



Industria Disenuaren Ingeniaritzako
Gradua


Elikagaien ingurumen azterna kalkulatzeko eta ekodiseinua eta horiek nabarmendu marketing berdearen bidez

Eroski S. Coop.

Hainbat lan egin dira EROSKIrentzat iraunkortasun arloan, hala nola, txartel ez digitalak ingurumenean dituen inpaktuak kalkulatzeko, 3. irismenarekin erakundearen karbono azterna kalkulatzeko, ontzien ingurumen azterketa egiteko baldintzak prestatzea, EROSKI-k merkaturatutako produktuen bizi-zikloaren azterketa konparatiboak egitea eta produktu ekologikoen araudia, ziurtagiriak eta etiketak aztertzea.

EROSKI-k Produktuen Ingurumen Azterna kalkulatzeko duen ELIKAPEF softwarean, hornitzaileei eskatu beharreko datuei buruzko galdetegiak egin dira, baita programaren funtzionamenduan hobekuntzak identifikatzeko probak egin dira.





Diego López Roitegui

Energia Berriztagarrien Integrazioa
Sistema Elektrikoan Masterra


Merytronic enpresaren MRT-700, RTU eta TSA ekipamenduen bizi-zikloaren azterketa

Merytronic

Proiektu honetan, Merytronic enpresaren hiru ekipamenduen Bizi Zikloaren azterketak egin dira, zehazki MRT-700, RTU eta TSA, aztertu dira, haien inpaktuak eta hauek nondik datozen identifikatzeko asmoaz, eta hobetzeko hainbat proposamen egin dira. Bizi zikloaren azterketak, ekipamendu elektriko, elektroniko eta HVAC-rako PEP ekopasport-eko PCRa jarraituz egin dira eta bizi zikloaren fase guztiak hartu dira kontuan, hau da, materialen lorpenetik produktuaren bizi-amaiera arte. Ingurumen inpaktu kategoria desberdinak aztertuz, inpaktu nagusiak, ekipo bakoitzarentzat ehuneko desberdinak izanik, erabilera-fasearekin lotzen direla ikusi da, bizitza osoan kontsumitutako elektrizitatearen ondorioz, eta ekipoak berak, Elektronikak talde hauetan inpaktu handia duelako.



merytronic
gorkan team




Pascual Perea Zabaleta


Industria Disenuaren Ingeniaritzako Gradua

Makina-erreminten materialen ingurumen inpaktuak kalkulatzeko tresna

Seelen Industrial Design SLU

Proiektua, gaur egun makina erremintaren diseinuan erabiltzen diren 5 materialen Bizi zikloaren azterketa konparatibo dinamikoa egiteko tresna bat garatu da. Tresna honek bi altzairu xaflek eta hiru material konposatuak sortutako inpaktuak kalkulatzeko dituzten, sartutako gainazal lodiera eta kantitatearen arabera. Proiektu honen xedea, makina-erremintaren karentaturako, altzairuak baino arinagoak diren material konposatuak aplikatzea da, makina muntatzeko erraztasuna areagotzeko, panel horien pisu unitarioa murrizteko eta bezero desberdinei makinaren garraioa errazteko. Beren funtzionalitatea bermatzeko, material konposatu horien gaineko eragin-probak egiteko baliabide nahikoak dituzten teknologia zentroekin lan egin da beharrezko azterketak egiten.





Mikel Astorkiza Andres

Kimikan Gradua

Eraikuntzan, ekonomia zirkularreko negozio eredu iraunkorragoa garatzea hiri sektorean.


TECNALIA Research & Innovation

Tecnalia egon den bitartean, Horizon 2020 programa europarrak finantzatzen duen CINDERELA proiektuan lan egiten aritu da.

Proiektuaren helburua ekonomia zirkular batean negozio eredu garatzea da, hirietako hondakin korranteetatik bigarren mailako lehengaiak berreskurapena ahalbidetzea da, ondoren eraikuntzako aplikazioetan erabiltzeko. Egindako lanak, EAEko hiri eta erdi hiriko hondakinen materialaren fluxua aztertzea suposatu du, gero datu hauek guztiak irudikatzeko eta aztertzeko, ondoren geo-bisualizazio tresna baten laguntzaz, erabakiak hartzen lagunduko duena.

Azkenik, azterketa bibliografiko baten bidez, aztertutako hondakinen korranteetako baten balio-katearen azterketa egin da eta PESTEL azterketa bat egin da, hondakinen balorizazioaren bideragarritasuna aztertzeko.





Jon Gallego Luis

Industria Disenuearen Ingeniaritzako
Gradua

Euskadiko Mugikortasun eta Logistika Klusterrako sektoreko zaintza txostena egitea

Clúster de Movilidad, Logística e ITS de Euskadi

Proiektua Euskadiko Mugikortasun, Logistika eta ITS Klusterraren Erakundearentzat sektoreko zaintza txostena bat garatzean datza, Ihobek duen zaintza metodologiaren arabera, UNE 166006: 2018 araua jarraitzen duena. Zeregin nagusia, gaur egungo egoerari buruzko informazioa batzea izan da eta garraio eta logistika sektorean sortzen ari diren joerak eta teknologiak ingurumen ikuspegitik, eta horien hobekuntza aztertzea izan da. Ekonomia zirkularra eta ekodiseinua izan dira txostenaren ardatzak nagusiak.


Txostenaren garrantzia estrategikoa da. Txostena, Klusterraren eta haren bazkideen posizionamendua, lehiakortasuna hobetzeko, eta erabakiak hartzeko instrumentu garrantzitsua izatea espero da.

Informe de vigilancia y competitividad ambiental:
Sector movilidad y logística de Euskadi


basque ecodesign center



Emissiones de CO₂ por modos de transporte



mlc-its-euskadi
clúster de movilidad y logística
mugikortasun eta logistika klusterra



Liher Beltrán Ruiz

Ingeniaritza Kimikoko Gradua.
Material Aurreratuen Ingeniaritza Masterra.
Kalitatea, Ingurumena eta PRL Masterra.

PEP ecopassport estandarraren arabera, Gas isolamendu integrala duten CGMCOSMOS zelulen familiarako produktuaren ingurumen deklarazioa. Ingurumen Zaintza Teknologikoaren Txostena.


ORMAZABAL Y CÍA


Proiektuan, bi lan egin dira paraleloan: Gas isolamendu integrala duten CGMCOSMOS zelulen familiarako Bizi Zikloaren Azterketa (BZA) eta dagokion Produktuaren Ingurumen Adierazpena (EPD) garatu dira, hala nola Ingurumen Zaintza Teknologikoaren Txostena egitea ere.

CGMCOSMOS produktuetarako LCA eta EPD proiektuak, PEP ecopassport-eko (EPD-etarako nazioarteko erreferentziazko programa) elektrizitate, elektronika, berokuntza eta hozte industrietako produktuen kategoriako arauak jarraituz egin dira. Aldi berean ingurumen zaintza teknologikoaren txostena prestatu da, non lehiakideen diagnostikoa eta sektoreko albiste eta alertetan oinarrituta, Ormazabalentzat, ingurumen-ekintzarako hainbat proposamen garatu diren.



basque ecodesign center
Laboratorio de Ideas





Mikel Fuertes Zabala

Industria Disenuearen Ingeniaritzako
Gradua

CIE Automotive eta Euskaltelen CDParen posizionamendua hobetzea.

CIE Amaya lantegiaren ingurumen-aztarna korporatiboaren kalkulua.

CIE Automotive / Euskaltel

Praktiketan zehar, CIE Automotive enpresarentzako bi proiektu burutu dira. Alde batetik, bere lantegietako batean Ingurumen Aztarna Korporatiboaren (HAC) kalkulatu egin da, kasu honetan CIE Amaya. Bai datuen bilketa eta bai emaitzak lortzeko eta ondorengo analisiak errazteko, kalkulu-tresna bat diseinatu egin da, bizi-zikloaren inbentarioaren eta karakterizazio-faktoreen arabera ingurumen-aztarna kalkulatzeko.

Honetaz gain, enpresari, Carbon Disclosure Project-en (CDP) enpresaren posizionamendua hobetzeko proposamenak egin zaizkio. Horretarako, CIE galdetegia ebaluatzeko simulaziorako tresna bat egin da, hobekuntzarako ahalmena duten galderak identifikatu direlarik eta 2019rako galdetegirako ekintza-plana proposatu delarik, enpresak ebaluazioan sektoreko batez besteko lortzeko aukera ematen ziolarik. CIE Automotive-en egindako ariketaren antzekoa eginez eta sortutako tresnak aprobetxatuz, Euskaltel-ek CDP-n duen egoera aztertu da eta ekintza plan bat proposatu da hurrengo urtean kalifikazioa handitzeko.





Olatz Noya Gutierrez


Ingurumen Zientzietan Gradua, Ingurumen Ingeniaritzan Ikerketan Masterra

Bizi Zikloaren Azterketa, Ingurumenaren zaintza eta Ekonomia Zirkularrarekin erlazionatutako beste proiektu batzuk.

IHOBE

Ekonomia Zirkularraren arloan lan egin da. Alde batetik, Euskadin hondakinen birzirkulatzeak dakarren berotegi-efektuko gasen murrizketa kalkulatzeko tresna bat garatu da. Enpresetan beira botilak berrerabiltzearen onurak eta eraginak ulertzeko, bizi-ziklo azterketa konparatiboa bat egin da ere. Bestalde, Eusko Jaurlaritzarentzat EAEn birgaikuntzaren merkatua sustatzeko garatu daitezkeen politika publikoak batzen dituen txosten bat idatzi da.

Era berean, elektrizitate sektoreko enpresentzat ekonomia zirkularreko adierazleen planteamendu bat egin da, Iberdrolarentzat pilotu bat egin delarik. Hiru enpresa energetikoen Ingurumen Zaintza egin da ere: Iberdrola, EDP eta Siemens-Gamesa, azken honen txostena idatziz.





Gorka Díaz Merino


Industria Disenuearen Ingeniaritzako
Gradua


Recircular plataformarentzat gizarte, ingurumen eta ekonomia adierazleen definizioa

Recircular servicios ambientales SL

recircular.net, on line plataforma baten bidez, hondakinak lehengai bezala berreskuratzeko enpresak lotzen dituen start-up bat da. Proiektuan zehar hondakinak berreskuratzeko aukerak, ingurumenean, gizartean eta ekonomian dituzten inpaktua neurtzeko tresna bat garatu da.

Ingurumen-ebaluazioa Bizi Zikloaren Azterketa ikuspegitik egiten da eta hondakinen korrante desberdinetarako, ohiko kudeaketaren aldean berreskuratzeak dakarren karbono aztarnaren murriztea, energia-eskaera metatua eta ur-aztarna kalkulatu delarik. Gizartearekin, osasunarekin eta lanpostuekin lotutako adierazleak, eta hondakinak berrerabiltzearekin lotutako adierazle ekonomikoak garatu dira inpaktuen kalkuluan sartzeko. Azkenik, recircular-en eragina, Garapen Jasangarriaren helburuetan egindako inpaktua erlazionatu da.





Álvaro Alonso Gutierrez

Industria Disenuearen Ingeniaritzako
Gradua

ISO 14006 Ekodiseinu Arauaren ezarpena

Burdinola, S.Coop


Proiektua Burdiona S.Coop enpresaren kudeaketa sistemaren baitan, ISO 14006 Ekodiseinu estandarra ezartzean datza. Horretarako, helburu hori lortzeko hainbat helburu bete behar izan dira, batetik, enpresaren kudeaketa sistemaren agiriak estandarrak berak proposatutako jarraibideetara egokitu behar izan dira, eta konpainiak dagoeneko ISO 14001 eta ISO 9001 estandarrak zituenenez, zeintzuk kudeaketa sistemara bideratuta dauden, prozedura horiek moldatu behar izan dira.

Horrez gain, enpresan ekodiseinatzeko kasu praktiko bat egitea beharrezkoa izan da, horregatik laborategiko kabinete bat hartu da berdiseinatu beharreko produktu gisa, eta honen hasierako bizi zikloaren azterketa egin da, ingurumenean inpaktua esanguratsuenak zehaztu ahal izateko, ondoren ingurumen hobekuntzak ezartzeko eta produktu berriaren garapena egiteko; honi, azkeneko bizi Zikloaren Azterketa egin ondoren, ingurumen hobekuntzaren ehunekoa zein izan den zehazteko.


COMPARATIVA DE IMPACTO TOTAL (mPt)



CONJUNTO DEL APARTADO COMPONENTES (mPt)



burdinola
safer labs



Judith Cengotitabengoa

Industria Disenuaren Ingeniaritzako
Gradua


ISO 14006 arabera ekodiseinuko lanak eta produktuen Ingurumen komunikazioa

Ofita Interiores S.A.

Proiektuan, PCR 2012:19 "Other furniture used in offices and n.e.c"-ean (UN CPC 3812 & 3814)oinarrituta, HARA operazio-aulki berriaren Bizi Zikloaren azterketa eta Produktuaren ingurumen komunikazioa egin dira. Proiektua garatzean, ISO 14006 araua betetzen dela ziurtatu da, Ofita Ekodiseinuko Kudeaketa Sistemaren ziurtagiria lortzeko beharrezko dokumentazio guztia garatuz. Enpresaren katalogoan zeuden beste produktu batzuen Ingurumen Komunikazioa ere egin da. Hauek MEET UP sofa (2400mm), DISTRICT mahia (1600x800mm), LOCK LOCK fitxategi pertsonala (1985x800mm) eta EASYLEVEL altuera erregulagarria duen mahaia(1600x800mm)izan dira. Azken bi produktu hauetan, BZA ere egin behar izan da beharrezko datuak lortzeko, produktu hauen aldaeren dokumentaziorik ez baitzegen.



ofita



Eider Iturrate Barrenetxea

Energia Berriztagarrien Ingeniaritzako
Gradua

Sorgailu elektriko eta motor baten produktuaren Ingurumen adierazpena.


Lancor 2000, S.Coop.

Lancor 2000, S.Coop-en burutu den proiektuaren helburua, produktuen Ingurumen Adierazpen (EPD)bi garatzea izan da. Aztertutako produktuak GSIP-350.24-52 sorgailua (Iman iraunkorreko sorgailu sinkronoa) eta MSIP-125.40-20 motorra (Iman iraunkorreko motor sinkronoa) izan dira.

Ingurumen adierazpen horiek garatzeko, lehenik eta behin produktu bakoitzaren Bizi Zikloaren Azterketa (BZA) egin da, “Cradle to Grave” irismenarekin. Gainera, proiektua ISO 14040 eta ISO 14044 arauak betez egin da, eta PCR-ed3-EN-2015 04 02 “Electrical, Electronic and HVAC-R Products” jarraituz, datuen egiazkotasuna ziurtatu ahal izateko.



lancor
motores eléctricos - electric motors



Paula López-Para Guisasola


Industria Teknologiarren Ingeniaritzako
Gradua (espezialitatea Offshore Energian)


Offshore haize-energia flotagarriarako, SATH (“Swing Around Twin Hull”) motako plataformaren karbono azterna.

Saitec S.A. y Saitec Offshore Technologies

Saitec Offshore Technologies-ek SATH garatu du, offshore haize-energia flotagarria sortzeko plataforma berritzailea. Proiektuaren helburua, SATH prototipo desberdinetan, klima aldaketari egiten dion ekarpena ebaluatzeko, eredu aldakor bat aztertzea izan da. Horretarako, IPCC metodologian eta SimaPro software komertzialan (8.5.2.0 bertsioa) oinarritu dira.

Eredu honek, SATH-ren potentziala kuantifikatzea bermatzen du, energia sortzean ematen diren emisioak murrizteko orduan eta antzeko plataformek dituzten abantailak hobeto ulertzeko. Era berean, ereduaren, emisio-faktorea nabarmen murriztu dezaketen diseinuaren hobekuntza aukerak aztertzea ahalbidetu du.





Mariana Martínez Barredo

Elikagaien Zientzia eta Teknologiako
Gradua, Elikadura-Kalitatea eta
Segurtasuna Masterra


Ontzien ingurumen inpaktuak kalkulatzeko tresna baten diseinua. Ingurumen zaintza estrategikorako txostena.

EROSKI, S.Coop.

Egindako proiektua, Eroskik dituen ontzientzako Ingurumen Azterna, Birziklagarritasuna eta Plastikozko Azterna kalkulatzeko tresna bat diseinatzean datza. Ingurumen Azternaren azterketa, Environdec-eko edukiontzietarako eta ontzietarako PCRko (Produktuen Kategoria Arauak) irizpideak jarraituz garatu da. Birziklapenerako eta plastikozko aztarnarako metodologia espezifikoak garatu dira.

Aldi berean, Retail sektorearen Ingurumen Zaintza Estrategikoa egin da, egungo merkatuaren egoera aztertuz, lehiakide garrantzitsuenak ikertuz eta sektorearen etorkizuneko joerak kontrolatuz. Horrekin, informazio aipagarriena biltzen duen txosten bat prestatu da eta erabakiak hartzen laguntzeko, Eroskirentzat ingurumeneko ekintza estrategikoak proposatu dira.





Diana García García

Ingurumen Zientzietan lientziatua,
Analisiko eta Kalitate Kontroleko
Laborategiko teknikaria


Igogailuentzat ErP Zuzentarauaren garapenaren jarraipena. Ingurumen zaintza estrategikorako txostena. Oronaren Ekodiseinurako tresna propioaren eguneratzea.

Orona S. Coop.

Proiektua hiru zatitan banatu da. Batetik, igogailuen ErP Zuzentarauaren garapen egoerari buruzko txostena egin da. Txosten honek Orona-ri zuzentarau honek jarrai ditzakeen joerei buruzko ondorioak eman dizkio, enpresak etorkizunean eskakizun hauei aurrea hartzeko asmoarekin.

Bigarrenik, Ingurumen Zaintza Estrategikoan Txostenean lan egin da, eta horrek Oronari, bere lehiakideek eta ingurumeneko gaitetan egiten dituzten ekintzak behatzen lagundu du, ikuspegi orokor batetik eta bideragarri diren neurri horietan jarduteko. Azkenik, Oronak duen Ekodiseinurako tresna eguneratzeko lana egin da, materialen eta prozesuen datu-basea eta aztertu beharreko inpaktuak eguneratuz eta igogailuaren PCR zehatzarekin koherentea eginez.





Jon Badiola Gallastegi


Biologiako Gradua


Teknimap-eko ingurumen-aztarna korporatiboaren kalkulua.

Teknimap. Energía y Medio Ambiente

Proiektu honetan, 2018. Urterako, Teknimap-eko ingurumen-aztarna korporatiboaren kalkulua (HAC) egin da.

Proiektu hau aurrera eramateko, lhobek argitaratu duen ingurumen-aztarna korporatiboaren kalkulatzeko gida metodologikoa jarraitu egin da, non enpresaren ingurumen-inpaktuaren gune nagusiak diren faktore eta zerbitzu garrantzitsuenak identifikatu diren. Enpresak bere zerbitzu desberdinek eragindako inpaktua alderatzeko, sarrerak eta irteerak proiektuen kategorietan banatu dira ere.





Aitor Rodríguez Mata
Ingurumen Zientzietako Gradua

Ingurumen-aztarna korporatiboaren kalkulurako adirazleen eguneratzea, Ekonomia Zirkularrerako Tresnaren Diseinua eta EDP Espainiarentzako Zaintza Estrategikorako Txostenaren garapena. Euskadiko Itsas Sektorearen Ingurumen Zaintzaren txostena eguneratzea Euskal Herriko Itsas Fororako.

EDP España, Foro Marítimo Vasco


EDPrentzat egindako proiektuak Ingurumen-aztarna korporatiboaren kalkuluarekin eta Ekonomia Zirkularrerako Estrategiarekin lotuta daude, baliabideen erabilera egokia sustatuz, enpresaren hazkunde iraunkorra sustatzeko. Gainera, Ingurumen zaintzarako txostena idatzi da, EDPrentzat informazio baliagarria bilduz eta erabaki egokiak hartzen lagunduko duten ingurumen ekintza estrategikoak proposatuz.

Euskal Herriko Itsas Fororako, Euskadiko itsas sektoreko Ingurumen Zaintzarako txostena eguneratu da, sektorean ingurumenean eta teknologian eman diren azken berrikuntzen berri ematen da, inpaktu nagusiak identifikatzeko, eta horiek murrizteko ekintzak proposatuz.



H.A.C.
Huella Ambiental Corporativa





Asier Peral Beitia

Ingurumen Ingeniaritzako Gradua


Euskadiko Mugikortasun eta Logistika Klusterraren (MLC-ITS) ingurumen-zaintzaren txostena
Euskadiko Aeronautika eta Espazio Klusterraren (HEGAN) ingurumen-zaintza txostenaren eguneratzea.

Clúster de Movilidad y Logística de Euskadi (MLC-ITS)

Clúster de Aeronáutica y Espacio de Euskadi (HEGAN)

Egindako lana Ingurumen zaintza eta Euskadiko Mugikortasun eta Logistika Klusterraren (MLC-ITS) eta Euskadiko Aeronautika eta Espazio Klusterraren (HEGAN) kasuan kasuko jarraipen txostenak idaztean oinarritu da.

Lehenik eta behin, arlo tematikoak eta zaintza kritikoko faktoreak ezarri dira, bilaketa, sareko hainbat tresna erabiliz egin delarik. Bi txostenek sektorearen egungo egoerari, legeriari eta ingurumenaren gaineko eraginari buruzko informazioa bildu dute. Era berean, ekonomia zirkularraren ikuspegia txostenetan txertatu da, negozio aukera zirkularrak eta enpresak produktuetan eta zerbitzuetan ekodiseinua aplikatzeko aukerak proposatuz.





José María Santos González

Ingurumen Zientzietako Gradua, Landa eta lurralde garapenerako estrategietan masterra


Ingurumen Zientzietako Gradua, Landa eta lurralde garapenerako estrategietan masterra

IBERDROLA S.A

ISO 14072 arauan oinarritutako bizi-zikloaren ikuspegiarekin, Ingurumen-aztarna korporatiboa garatu da, kanpoko egiaztapena prozesuan parte hartu duelarik. Ur baliabideen kudeaketaren egoeraren azterketa egin da ere. Bizi-zikloaren ikuspegitik eta ISO 14046 arauaren arabera, Ur aztarnaren garapena, Iberdrola S.A. enpresan garatu da.

Horrez gain, ingurumen zaintza estrategikorako txostena egin da, existitzen diren lan-ildoei buruzko erabakiak hartzeko eta BEdCren esparruan garatu beharreko proiektu berriei buruz informatzeko.





Borja Oyarzabal Fernández

Biologia



Euskaltelen CPD zerbitzuek Kontratazio Publiko Berdean duen posizioa aztertzea. Ihobe-ren erosketa publikoko prozesuetan laguntza.

Euskaltel / Ihobe

Euskaltelentat egindako lanen helburua, Europako Batzordeak 2018an argitaratutako erosketa publiko berde irizpideak kontutan hartuta, zeintzuk Europar Batasuneko administrazio publikoko maila guztietan aplikatu daitezkeen, CPDren bidez ematen diren zerbitzuetan oinarrituta, enpresak duen posizioa aztertzea izan da. Europako Batzordearen dokumentuaren izen osoa “Development of the EU Green Public Procurement (GPP) Criteria for Data Centres and Server Rooms” da.

Emaitzak, Euskaltel-ek aukerak identifikatzeko lagunduko du eta kontratazio organoak erosketa publiko berdeko irizpideak kontutan hartzen dituen lizitazio publikoetan bere lehiakortasuna hobetzen lagunduko du ere.





Web orri interesgarriak

